



## ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Belén Mendizabal Otegui, Aramako Udaleko Idazkariak

**ZIURTATZEN DUT:** Udal honek 2007ko urriaren 16an egindako bilkuran, eta erabaki hau jasotzen duen akta zirriborroa onartzearen erreserbarekin, 2568/1986 Errege Dekretuaren 206 artikulua adierazten duenaren arabera, beste batzuen artean honako erabakia hartu zuela:

### • EUSKARA IKASTAROAK EGITEAGATIKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUAK

#### PROPOSAMENA

Euskara ikastaroetara joategatiko dirulaguntzen oinarriak onartzea.

Dirulaguntza hauen helburua ikasturtean zehar euskara ikastaroak jaso dituzten ikasleak diruz laguntzea da. Horrela herritarrak Euskal Herriko berezko hizkuntza den euskara ikastera edo euskaraz alfabetatzera bultzatu nahi dira.

Matrikula ikasleak berak ordainduko du ikasturtearen hasieran eta ikasturtea amaitu eta hilabeteko epean banatuko dira dirulaguntzak. Baldin eta herritarren batek matrikula ordaintzeko arazorik balu, kasua aztertu eta udalak matrikula ordaintzea baloratuko du.

Dirulaguntza jasotzeko baldintzak:

- Ikastaroaren matrikula osorik ordainduta izatea.
- Dirulaguntza ematen duen udalean erroldatua egotea, gutxienez eskaera aurkeztu baino 2 urte lehenagotik eta ikastaroa amaitu arte. (Egoera honetan ez dauden pertsonen eskariak banan banan aztertuko dira)
- Ikastaroan gutxienez %80ko asistentzia izatea.

Aurkeztu beharreko agiriak

- Nortasun agiriaren kopia
- Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea (norberak ala euskaltegiak)
- Asistentzia ziurtagiria (euskaltegiak)
- Dirulaguntza jaso ahal izateko kontu korrante zenbakia
- Ikasleen kasuan ikasle txartela
- Langabetuek langabetu txartela

Emango diren dirulaguntzak

- Euskarazko ikastaro arruntak %50<sup>a</sup> jasoko dute lanean diharduten langileek
- Euskarazko ikastaro arruntak %75<sup>a</sup> jasoko dute langabetu eta ikasleek
- Barnetegi moduan egindako ikastaro edo ikastaro intentsiboak %25<sup>a</sup>

Egindako proposamenari buruz hitzegiteko txanda eman ondoren ez da egon ezer esateko eta bertaratutako zinegotzien aldeko eritziarekin ahobatasunez proposamena onartutzat eman da.

Eta dagokion ondorioetarako ziurtagiri hau luzatzen dut, Araman, 2007ko urriaren hogeitahiruan.

O.E.  
Alkatea,